*32. artikulua.–* Eztabaida.

1.– Proposamena aurkeztu eta gehienera ere hilabete biko epean, campuseko errektoreordeak biltzeko deia egingo dio Campuseko Batzarrari, proposatzen den aldaketaz erabakia hartzeko.

2.– Errektoreordeak edo zuzenketa proposatu duten kideetako batek ordezko testua aurkeztu eta defendatuko du eta, ondoren, batzarrak bozkatuko du.

3.– Arautegia aldatzeko proiektuak aurrera egingo du baldin eta aldeko botoen gehiengo osoa lortzen badu batzarrean.

4.– Onartu ondoren, ordezko testuari egindako zuzenketa partzialak eztabaidatuko dira eta bozketa egingo da, ordezko testuko artikuluen ordenari jarraiki.

5.– Hurbiltze testuak eta aldaketa teknikoak edo estilokoak proposatu ahal izango dira eztabaidan zehar, eta zuzenketak proposatu dituztenek horiek bertan behera utzi edo aldatzeko aukera izango dute.

*33. artikulua.–* Proposamena atzera botatzea.

Arautegia aldatzeko proiektu batek aurrera egin ezean, proposamena egin dutenek ezin izango dute inongo artikulurik aldatzea proposatu urte bateko epean.

*34. artikulua.–* Proposamena onartzea.

Gehiengo osoak onartutako aldaketak unibertsitateko agintari eskudunei aurkeztuko zaizkie, ontzat eman eta argitara ditzaten. Aldatu behar diren artikuluek indarrean jarraituko dute harik eta arautegia aldatzeko erabakia argitaratu arte.

*Artículo 32.–* Debate.

1.– La Vicerrectora o Vicerrector convocará la Junta de Campus para decidir sobre dicha reforma en un plazo máximo de dos meses, a contar desde la presentación de la iniciativa.

2.– La Vicerrectora o Vicerrector o, en su caso, uno de los proponentes presentará y defenderá el texto alternativo de reforma del Reglamento, que será sometido a votación de la Junta.

3.– El proyecto de reforma prosperará si obtiene el voto positivo de la mayoría absoluta de la Junta.

4.– Tras su aprobación, se debatirán las enmiendas parciales y se votarán en el orden correlativo de inserción en el articulado del texto alternativo.

5.– En el curso del debate se podrán proponer textos de acercamiento y correcciones técnicas o de estilo, pudiendo las enmiendas ser retiradas o modificadas por sus proponentes.

*Artículo 33.–* Rechazo de la modificación.

Rechazado un proyecto de reforma, los solicitantes no podrán ejercer la iniciativa de reforma de cualquier artículo del reglamento en un plazo de un año.

*Artículo 34.–* Aprobación de la modificación.

Las modificaciones aprobadas por mayoría absoluta serán elevadas a las autoridades universitarias competentes para su aprobación y publicación. Hasta que se dicte la resolución interesada, los artículos afectados por la reforma quedarán en vigor.

# Bestelako Xedapenak

## OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

### 3118

EBAZPENA, 2006ko maiatzaren 31koa, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, herri-administrazioaren arloan prestakuntza eta ikerketak egiteko lau bekatarako deialdia egiten duena.

Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak herri-administrazioaren arloko gaietan prestatzeko eta ikasketak eta ikerlanak egiteko zenbait bekatarako deialdia egiten du urtero. Bekadunei egingo dituzten ikerketalanak batetik eta, bestetik, administrazioaren zenbait

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

### 3118

RESOLUCIÓN de 31 de mayo de 2006, del Director del Instituto Vasco de Administración Pública, por la que se convocan cuatro becas para la formación e investigación en el campo de la Administración Pública.

El Instituto Vasco de Administración Pública promueve, con carácter periódico anual, la convocatoria de becas para la formación, estudio e investigación de temas relacionados con la Administración Pública con el propósito de aunar las tareas de investigación con la po-

alderdiri buruz antola daitezkeen mintegietan parte hartzeko aukera batzea da beka horien helburua.

Halaber, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak proposatutako gaiei buruzko ikerketa sustatu nahiak bekei osotasuna eta balio handiagoa ematen dizkie, bekadunek prestakuntza osoagoa eta trinkoagoa eskura dezaten.

Hori guztia kontutan hartuta, honako hau

EBATZI DUT:

***Artikulu bakarra.***– Herri-administrazioaren alorrean prestakuntza lortzeko eta ikerketak egiteko lau bekatarako deialdia onestea, I. eranskinean aipatzen diren oinarrien arabera.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko maiatzaren 31.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
JON KOLDOBIKA URRUTIA MINGO.

I. ERANSKINA

HERRI-ADMINISTRAZIOAREN ALORREAN PRESTAKUNTZA LORTZEKO ETA IKERKETAK EGITEKO LAU BEKATARAKO DEIALDIA EGITEN DUEN EBAZPENARENA

***Lehenengoa.***– Deialdiaren helburua herri-administrazioaren alorrean prestakuntza lortzeko eta ikerketak egiteko lau beka esleitzea da.

***Bigarrena.***– Beken helburua unibertsitateko lizentziatuei herri-administrazioaren arloko prestakuntza osagarria eskaintzea da.

Horretarako, bekadunak, zuzenbide publiko, administrazio eta/edo funtzio publikoarekin zerikusia daukan berak hautatutako gai bati buruz ikerlan bat egin beharko du, jarraian aipatzen diren arloak ikertzeko lehentasunezko gaiak izanik:

1.– Alderdien eta elkarte politikoen legezkotasuna hainbat sistema politikotan: azterketa alderaketaduna.

2.– Hizkuntza gutxituen erabilera sustatzea: azterketa alderaketadunak.

3.– Toki-korporazioetan diharduten langile hautatuen bateraezintasunak eta interesen kontrola: azaroak eta eraginkortasuna.

sibilidad de acceder a la formación que se deriva de la asistencia al ciclo de Seminarios que, sobre diferentes aspectos de la Administración, se organicen.

Asimismo, la pretensión de propiciar e incentivar la investigación sobre aquellos temas propuestos por el Instituto Vasco de Administración Pública contribuye a complementar y dotar de una mayor funcionalidad a las becas con el fin de proporcionar a los becarios una formación más acusada e intensa.

Por consiguiente,

RESUELVO:

***Artículo único.***– Convocar cuatro becas de investigación, de acuerdo con las bases que figuran en el anexo I de la presente Resolución.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Resolución entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 31 de mayo de 2006.

El Director del Instituto Vasco de Administración Pública,
JON KOLDOBIKA URRUTIA MINGO.

ANEXO I

DE LA RESOLUCIÓN POR LA QUE SE CONVOCAN CUATRO BECAS PARA LA FORMACIÓN E INVESTIGACIÓN EN EL CAMPO DE LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

***Primera.***– La presente convocatoria tiene por objeto proceder a la adjudicación de cuatro becas para la formación e investigación en el campo de la Administración Pública.

***Segunda.***– Las becas tienen por objetivo el ofrecer formación complementaria en el campo de la Administración Pública a titulados universitarios.

Para ello, el becario deberá realizar un trabajo de investigación sobre un tema a su elección, relacionado con el derecho público y la administración y función públicas, siendo las áreas de investigación prioritarias las siguientes:

1.– Legalidad de partidos y asociaciones políticas en diversos sistemas políticos: estudio comparado.

2.– Fomento del uso de lenguas minorizadas: estudios comparados.

3.– Incompatibilidades y control de intereses del personal electo al servicio de las corporaciones locales: problemática y efectividad.

4.– Udal-administrazioa eta zehapen-ahalmena.

*Hirugarrena.–* Bekak ikasketa akademikoak 2002ko ekainean edo geroago amaitu dituztenentzat dira eta honako titulazioren bat badutela egiaztatu beharko dute:

a) 1 zenbakian aipatu den arloari buruzko ikerlanak egiteko: Zuzenbide edo Zientzia Politikoetarako lizentziatura.

b) 2 zenbakian aipatu den arloari buruzko ikerlanak egiteko: Zuzenbide, Zientzia Politiko, Soziologia edo Filologian lizentziatura.

c) 3 zenbakian aipatu den arloari buruzko ikerlanak egiteko: Zuzenbide edo Zientzia Politikoetarako lizentziatura.

d) 4 zenbakian aipatu den arloari buruzko ikerlanak egiteko: Zuzenbideko lizentziatura.

*Laugarrena.–* Beka bakoitza bederatzi mila ehun eta laurogei (9.180) eurokoa izango da.

Era berean, bekadunek bere lanaren gaiarekin zerikusia duten ikastaro, mintegi eta bestelako ekintzetara joateko baimena eska dezakete. Aipatutako ekintzengatik erakunde honek ordaindutako gastuen kopurua ezin izango da 2.000 eurokoa baino gehiagokoa 2006.urtean, eta 3.000 eurokoa baino gehiagokoa 2007. urtean. Ekintza horietara joateko baimena eskaeren aurkezpen-egunaren arabera emango da.

*Bosgarrena.–* Beken iraupena bederatzi hilabetekoa izango da, 2006ko urriaren lehenengo egunetan izan behar duen jabetza hartzetik aurrera.

Bekadunek, aldizka, txosten bat aurkeztu beharko dute, ikerlana zein egoeratan dagoen azalduz. Txosten hori aurkeztuta eta tutoreak onartuta, bekadunari 1.530 euro ordaintzeko izapidetzari hasiera emango zaio. Txostenak aurkeztu behar diren datak honako hauek izango dira:

Urriaren amaieran.
Azaroaren amaieran.
Urtarrilaren amaieran.
Martxoaren amaieran.
Maiatzaren amaieran.

Halaber, ikerketa-lana bukatuta aurkeztutakoan, bekadunari 1.530 euro ordaintzeko izapidetzari hasiera emango zaio.

*Seigarrena.–* Aipaturiko laguntzak ez dakar inolako kontratu-loturarik Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen eta jasotzailearen artean, eta, era berean, bekadunek ezin dute ez soldatapeko lanik ez bestelako diru-laguntza edo bekarik aldi berean izan.

Ezin izango dute deialdi honetan parte hartu debeku horrekin zigortutako pertsona fisikoek, ezta diru-la-

4.– Potestad sancionadora en la administración municipal.

*Tercera.–* Las becas van dirigidas a aquellos que hayan finalizado sus estudios académicos en junio de 2002 o en períodos posteriores y que acrediten poseer una de las titulaciones siguientes:

a) Para realizar trabajos de investigación relativos al ámbito número 1: Licenciatura en Derecho o Ciencias Políticas.

b) Para realizar trabajos de investigación relativos al ámbito número 2: Licenciatura en Derecho, Ciencias Políticas, Sociología o Filología.

c) Para realizar trabajos de investigación relativos al ámbito número 3: Licenciatura en Derecho o Ciencias Políticas.

d) Para realizar trabajos de investigación relativos al ámbito número 4: Licenciatura en Derecho.

*Cuarta.–* La cuantía de cada una de las becas será de nueve mil ciento ochenta (9.180) euros.

Asimismo los becarios podrán solicitar autorización para asistir a cursos, seminarios y otras actividades relacionadas con el tema de su trabajo, no pudiendo exceder la cuantía de los gastos derivados de los mismos abonables a cargo del Instituto de un total global de 2.000 euros en el año 2006 y de un total global de 3.000 euros en el año 2007. La autorización de la asistencia a tales actividades se realizará por orden de presentación de solicitudes.

*Quinta.–* la duración de las becas será de nueve meses a partir del día de la toma de posesión, que deberá tener lugar en los primeros días del mes de octubre de 2006.

Los becarios deberán presentar, periódicamente, una memoria relativa al estado del trabajo que deben realizar. Presentada cada memoria y aprobada por el tutor, se procederá al abono al becario de la cantidad de 1.530 euros. Las memorias deberán presentarse en las siguientes fechas:

Fin de octubre.
Fin de noviembre.
Fin de enero.
Fin de marzo.
Fin de mayo.

Asimismo, a la entrega del trabajo de investigación finalizado, se procederá a abonar al becario la cantidad de 1.530 euros.

*Sexta.–* La beca no supone relación contractual alguna entre el Instituto Vasco de Administración Pública y el adjudicatario de la misma, y será incompatible con el desarrollo de cualquier trabajo asalariado y con el disfrute de cualquier otra ayuda o beca.

No podrán concurrir a la presente convocatoria las personas físicas incursas en prohibición al efecto, o en

guntza publikoa jasotzeko ezintasuna dakarren zigor administratibo edo penala jasotakoek ere.

Era berean, herri-administrazioko alorrean prestakuntza lortzeko eta ikerketak egiteko, lehen, beka bat hartuta daukanari ezin zaio deialdi honetako beka bat eman.

*Zazpigarrena.–* Ikerlana burutzeko, bekadunek erabili ahal izango dute Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko liburutegian dauden material bibliografiko eta dokumentala.

*Zortzigarrena.–* Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendari jaunak tutore bana izendatuko die bekadunei, ikerlanaren zuzendaritza bere kargu har dezan. Tutoreak, aurkezten zaion behin behineko lanplangintza ikusita, aldaketak eta iradokizunak proposatuko ditu eta, lana zein izango den behin betiko finkatuta, hori betetzen dela ziurtatuko du.

*Bederatzigarrena.–* Deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita hogeita hamabi egun naturaleko epea zabalduko da eskabideak aurkezteko.

Hona eskabideak aurkezteko edo bidaltzeko helbidea: Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendari jauna, Donostia kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz. Eskabideak deialdi honen II. eranskinean dagoen ereduaren arabera egingo dira.

Halaber, eskabideak aurkeztu daitezke Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, 38.4 artikuluan, ezartzen duen edozein modutan.

Deialdi honen barruan pertsona berberak ezin izango du bi ikerlan desberdinetarako eskaria egin.

Eskabidearekin batera dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

– ENAren fotokopia.

– Ikasketa-titulua. Deialdi honetako hirugarren oinarrian jaso direnetako bat izan behar du. Zein unibertsitatek eman dion agiria eta noiz bukatu zituen ikasketak zehaztu beharra du.

– Ikasketen ziurtagiria, zein emaitza eta irakasgai bakoitza zenbatgarren deialdian lortu dituen ondo zehaztuta.

– Ez soldatapeko lanik, ezta bestelako diru-laguntza edo bekarik ez duen zinpeko aitorpena (eskabide-ereduan sartuta).

– Herri-administrazioko alorrean prestakuntza lortzeko eta ikerketak egiteko, lehen, bekarik lortu ez duela dioen zinpeko aitorpena (eskabide-ereduan sartuta).

– Curriculum vitae. Bertan azalduko dira laneko eta ikerlanetako esperientzia, argitalpenak, zein kongresu, jardunaldi, mintegi eta abarretara joan edo parte har-

sanción administrativa o penal que conlleve la imposibilidad de obtención de subvención o ayuda pública.

Asimismo, la beca no podrá ser concedida a quienes hayan disfrutado de alguna beca para la formación e investigación en el campo de la Administración Pública.

*Séptima.–* Para el desarrollo de su tarea investigadora los becarios dispondrán de todo el material bibliográfico y documental que obra en la biblioteca del Instituto Vasco de Administración Pública.

*Octava.–* El Director del Instituto Vasco de Administración Pública asignará un tutor a cada becario, que asumirá la dirección técnica de su trabajo de investigación. El tutor, a la vista del esquema provisional que se le formule, propondrá modificaciones y realizará observaciones y, una vez fijado el esquema definitivo del trabajo, controlará su cumplimiento.

*Novena.–* Las instancias habrán de presentarse en el plazo de 32 días naturales a partir del día siguiente a la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco.

Las instancias se dirigirán al Director del Instituto Vasco de Administración Pública, c/ Donostia 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, y se elaborarán, según el modelo que consta en el anexo II de esta convocatoria.

Asimismo, las solicitudes podrán presentarse en cualquiera de las formas indicadas en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Una misma persona no podrá realizar solicitud para la elaboración de dos trabajos de investigación distintos, en el marco de esta convocatoria.

A la instancia se acompañará la siguiente documentación:

– Fotocopia del DNI.

– Título académico, que deberá ser alguno de los incluidos en la base tercera de la presente convocatoria, así como Universidad que ha expedido el título y fecha de finalización de los estudios.

– Certificación académica detallada en la que figuren las calificaciones obtenidas y el número de convocatoria en que ha sido superada cada asignatura.

– Declaración jurada de no realizar ningún trabajo asalariado ni disfrutar de ninguna otra ayuda o beca (incluida en el modelo de solicitud).

– Declaración jurada de no haber disfrutado anteriormente de ninguna beca para la formación e investigación en el campo de la Administración Pública (incluida en el modelo de solicitud).

– Curriculum vitae, en el que se harán constar la experiencia profesional e investigadora, publicaciones, asistencia y participación en congresos, jornadas, semi-

tu duen eta euskara eta beste hizkuntzen ezagupenak. Hori guztia, hala balegokio, ziurtagiri, diploma edo bestelako dokumentuen bidez egiaztatuko da. Horrela egiten ez bada edo eskabideak aurkezteko epez kanpo aurkezten badira merezimenduen egiaztagiriak, ez dute baliorik edukiko.

– Makinaz idatzitako gehienez ere bost orrialdeko txostena. Bertan izangaiak txukun eta argi azalduko du:

• zein arrazoirengatik eskatu nahi duen beka.

• zein den proposatzen duen ikerlana burutzeko gai zehatza, beti ere bigarren oinarrian aipatutako arloen barruan.

• zein den proposatzen duen ikerlanaren egitarau-aurkibidea.

• zein metodologiari jarraituko dion.

Prozesu honetan jasotako datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean bilduko dira, prozesu hau kudeatu ahal izateko, beste ezertarako ez. Beti ere, Datu Pertsonalak babesteari buruzko legeria betez. Fitxategiko datuetara sartzeko, datuok aldatu eta deuseztatzeko edo inori ematen ez uzteko eskubidea erabili nahi izanez gero, izangaiek HAEEko Idazkaritza Nagusira jo ahal izango dira.

***Hamargarrena.***– Honako hauek izango dira hautaketa-batzordekideak:

Mahaiburua:

– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendari jauna edo horren ordezkoa.

Mahaikideak:

– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko idazkari nagusi anderea edo horren ordezkoa.

– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Prestakuntza-Zerbitzuko burua edo horren ordezkoa.

– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Hautaketa-Zerbitzuko burua edo horren ordezkoa.

Idazkaria:

– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Azterlan eta Argitalpen Zerbitzuko burua edo horren ordezkoa. Azken honek hitza eta botoa dituela.

Halaber, hautaketa-batzordeak, egoki baderitzo, aholkulari espezialistak eduki ahal izango ditu bere kideei laguntza emateko. Aholkulariok beren espezialitate teknikoetara mugatuko dute jarduna, izaera horrekin bakarrik hartzen baitute parte kalifikazio-organo horretan.

narios, etc., conocimientos de euskera y conocimientos de otros idiomas. Todos estos extremos se acreditarán, en su caso, documentalmente mediante certificados, diplomas o cualquier otro medio que justifique su veracidad. No tendrán valor alguno las alegaciones de méritos que no se acompañen de justificación documental, ni las certificaciones de méritos aportadas con posterioridad a la finalización del plazo de presentación de instancias.

– Memoria no superior a cinco páginas mecanografiadas, en la que se expongan de modo ordenado y claro:

• Las razones que motivan al aspirante para concursar a las becas.

• El tema concreto sobre el que versará el trabajo de investigación, dentro de las áreas señaladas en la base segunda.

• Programa-índice del trabajo de investigación que se propone.

• Metodología de trabajo que pretende seguirse.

Los datos personales recogidos en este proceso van a ser almacenados en un fichero automatizado, con el único objeto de gestionar este proceso, y ello, en el marco de la legislación relativa a protección de datos. Para ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición los aspirantes podrán dirigirse a la Secretaría General del IVAP.

***Décima.***– La Comisión de Selección estará compuesta por los siguientes miembros:

Presidente:

– El Director del Instituto Vasco de Administración Pública o persona en quien delegue.

Vocales:

– La Secretaria General del Instituto Vasco de Administración Pública o persona en quien delegue.

– La Responsable del Servicio de Formación del Instituto Vasco de Administración Pública o persona en quien delegue.

– El Responsable del Servicio de Selección del Instituto Vasco de Administración Pública o persona en quien delegue.

Secretaria:

– La Responsable del Servicio de Estudios y Publicaciones del Instituto Vasco de Administración Pública o persona en quien delegue, que actuará con voz y voto.

Asimismo, La Comisión de Selección podrá disponer, si lo cree conveniente, la incorporación de asesores especialistas que colaboren con sus miembros. Dichos asesores se limitarán al ejercicio de sus especialidades técnicas, en base exclusivamente a las cuales colaborarán con el órgano calificador.

Batzordeak hartuko duen edozein erabaki aurrera ateratzeko beharrezkoa izango da, gutxienez, bost kideetatik hiruk haren aldeko botoa ematea.

*Hamaikagarrena.–* Lehiaketaren balioespenerako puntuak bi alditan neurtuko dira, honako baremo honen arabera:

Lehiaketaren lehenengo aldia.

A) Ikasketa-espedientea: 25 puntu.

B) Laneko esperienzia: 5 puntu.

C) Ikerlanetako esperientzia eta argitalpenak: 10 puntu.

D) Kongresu, jardunaldi eta mintegietara joatea eta haietan parte hartu izana: 10 puntu.

E) Ikerlanaren memoria: 15 puntu.

F) Euskararen ezagupena: 20 puntu (EGA edo baliokideak).

G) Beste hizkuntzak: 5 puntu. Beken esleipen-prozesuan parte hartzeko derrigorrezkoa ez den hizkuntza ezagupena besterik ez da hartuko merezimendutzat.

Lehiaketaren bigarren aldia.

H) Elkarrizketa: 30 puntu.

Elkarrizketara heltzeko, A, B, C, D eta E puntuetako atalen artean gutxienez 25 puntu lortu beharko dira. Lehiaketaren lehenengo aldian gutxienez 25 puntu horiek lortzen ez dituztenek bekak esleitzeko prozesutik baztertuak izango dira.

*Hamabigarrena.–* Eskabide-orriak aurkezteko epea bukatzean, hautaketa-batzordeak beken esleipenerako prozesuan onartu eta baztertu direnen zerrenda egingo du.

Halaber, hautaketa-batzordea bildu egingo da eta gero zerrenda bat egingo du hautatuen izenekin. Zerrenda hori hautagaien lan- eta ikasketa-merituak kontutan izanik egingo da. Gero, elkarrizketa bat egingo zaie jakinaraziko zaien egunean eta orduan.

Aurrean aipatutako zerrendak jendaurrean jarriko dira Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen egoitzetako iragarki-oholetan, Bilbon (Errekalde Zumarkalea, 18), Vitoria-Gasteizen (Donostia kalea, 1), Oñati (Unibertsitatea), eta Donostia-San Sebastiánen (Prim, 7), eta www.ivap.org helbide-elektronikoan.

*Hamahirugarrena.–* Hautatuek, jakinaraziko zaien lekuan, elkarrizketa bana izango dute batzordekideekin. Elkarrizketaren nondik norakoa hau izango da: herri-administrazioa, norberaren asmo profesionalak, bekaren gaiaz duten interesa eta abar.

*Hamalaugarrena.–* Hautaketa-batzordeak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko iragarki-oholetan eta www.ivap.org helbide-elektronikoan argitaratuko

Cualquier acuerdo que adopte la Comisión requerirá, al menos, el voto favorable de tres de sus cinco miembros.

*Undécima.–* La valoración del concurso se realizará en dos fases y se ajustará al siguiente baremo:

1.ª Fase del concurso.

A) Expediente académico: 25 puntos.

B) Experiencia profesional: 5 puntos.

C) Experiencia investigadora y publicaciones: 10 puntos.

D) Asistencia y participación en congresos, jornadas y seminarios: 10 puntos.

E) Memoria del proyecto de investigación: 15 puntos.

F) Conocimientos de euskera: 20 puntos (EGA o equivalente).

G) Otros idiomas: 5 puntos. Únicamente se valorará como mérito el conocimiento de idiomas que no resulte preceptivo para concurrir al proceso de adjudicación de las becas.

2.ª Fase del concurso.

H) Entrevista: 30 puntos.

Al objeto de pasar a la fase de entrevistas se deberán alcanzar entre los apartados contemplados en los puntos A, B, C, D y E del baremo, al menos 25 puntos. Los aspirantes que no obtengan, en la primera fase del concurso, esta puntuación mínima de 25 puntos quedarán eliminados del proceso de adjudicación de las becas.

*Duodécima.–* Finalizado el plazo de presentación de instancias, la Comisión de Selección elaborará la lista de admitidos al proceso de adjudicación de las becas.

Asimismo, previa reunión al efecto, elaborará un listado de aquellas personas que, en virtud de sus méritos profesionales o académicos, pasarán a una entrevista en el día y hora que se determinará en su momento.

Los listados referidos anteriormente se harán públicos en los tablones de las dependencias del Instituto Vasco de Administración Pública en Bilbao (Alda. Recalde, 18), Vitoria-Gasteiz (Donostia, 1), Oñati (Universidad) y Donostia-San Sebastián (Prim, 7), así como en la dirección electrónica de internet www.ivap.org.

*Decimotercera.–* Los aspirantes seleccionados para la entrevista serán convocados en el lugar que se determine, para llevar a cabo un diálogo con la Comisión sobre aspectos relacionados con la Administración pública, sus proyectos profesionales, su interés por la temática objeto de la beca, etc.

*Decimocuarta.–* La Comisión de Selección publicará en los tablones de anuncios del Instituto Vasco de Administración Pública, y en la dirección electrónica

ditu prozesuen azken emaitzak, eta bekarako hautatu dituen lau pertsonak adierazten dituen zerrenda egingo du. Halaber, zerrenda horretan agertuko dira lehentasuna duten hurrengo lauen izenak, ordezkapen-ordenaren arabera, inork bekari uko egingo balio edo besterik gertatuko balitz lanean hasteko. Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak hartuko duen ebazpen bidez emango dira bekak eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.

*Hamabosgarrena.–* Bukatutako ikerlanak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko liburutegian gorde egingo dira, eta jabetza intelektualerako eskubideari buruzko arauei loturik baino ezin izango dira erabili.

Bekadunak esleitutako ikerlana jabetza intelektualaren erregistroan inskribatu beharko du, ikerlana Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundean jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita urte beteko epean, gehienez ere. Esandako epean inskribatzea ezinezkoa izango balitz, eta beti ere epe hori igaro aurretik, bekadunak, arrazoiturik, agerian jarriko du ezintasuna. Lehen aipatutako urte beteko epean inskribatzeko ezintasuna guztiz egiaztatzen den kasuetan, inskribatzeko beste epe bat ireki ahal izango da. Lehen aipatutako epean inskribatzeko ezintasuna adierazten duen jakinarazpena jasotzen ez bada, eta beti ere epe hori igaro eta gero, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ikerlana inskribatu egin dela ulertuko du.

*Hamaseigarrena.–* Bekadunen betebeharrak oinarri hauetan jasotakoak izango dira. Edonola ere, bekadunak antolatutako mintegi eta jardunaldietara joan beharko du, eta tutoreak esandakoari lotuko zaio.

Beste aldetik Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antola-arauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 50.2 artikuluaren arabera, laguntza hauen jasotzaileen betebeharrak honako hauek ere izango dira:

a) Diru-laguntza ematea zilegi egiten duen egoeran egon.

b) Diru-laguntza ematen duen erakundeari frogatu behar diote eskatzen diren beharkizunak eta baldintzak bete direla eta jarduera egin dela.

c) Erakunde emailearen egiaztatze-jarduketen esanetara egon behar da. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura jasotzen diren laguntza eta dirulaguntzei dagokienez, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egiten dituen kontrol-jarduketen esanetara egon behar du, bai eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren araudi espezifikoenetara ere.

de internet www.ivap.org, los resultados totales del proceso y elevará una lista con los cuatro aspirantes propuestos para la adjudicación de la beca, así como cuatro suplentes que tendrán preferencia, según el orden de suplencia, para cubrir posibles renuncias o cualquier otra incidencia. Las becas serán adjudicadas por Resolución del Director del Instituto Vasco de Administración Pública, publicándose en el Boletín Oficial del País Vasco.

*Decimoquinta.–* Los trabajos finalizados se depositarán en la biblioteca del Instituto Vasco de Administración Pública, y, únicamente, se podrá hacer uso de ellos en el marco de las normas que regulan el derecho de propiedad intelectual.

El becario habrá de inscribir el trabajo objeto de la beca en el registro de la propiedad intelectual, en el plazo máximo de un año contado desde el día siguiente a la recepción del trabajo en el Instituto Vasco de Administración Pública. La imposibilidad de realizar la inscripción en dicho plazo deberá ser puesta de manifiesto, motivadamente, por el becario, con anterioridad a la finalización del mismo. En los supuestos en que hubiera quedado debidamente acreditada la imposibilidad de realizar la inscripción en el plazo de un año anteriormente señalado, podrá establecerse un nuevo plazo para efectuar la inscripción registral. De no existir comunicación que manifieste la imposibilidad de haber llevado a término la inscripción en el plazo anteriormente señalado, y una vez transcurrido éste, el Instituto Vasco de Administración Pública entenderá que la inscripción se ha producido.

*Decimosexta.–* Las obligaciones de los becarios serán las establecidas en las presentes bases. En todo caso, el becario -adjudicatario se obliga a asistir con aprovechamiento a todos los Seminarios y actividades que se convoquen y a seguir las directrices que se le indiquen por el tutor.

Asimismo, y de conformidad con el artículo 50.2 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, serán obligaciones de los becarios las siguientes:

a) Encontrarse en la situación que fundamente la concesión de la subvención.

b) Justificar ante la entidad concedente el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad que determinan la concesión o disfrute de la ayuda.

c) El sometimiento a las actuaciones de comprobación, a efectuar por la entidad concedente, y a las de control que corresponden a la Oficina de Control Económico en relación con las ayudas y subvenciones percibidas con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, además de las previstas por la normativa específica del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

d) Erakunde emaileari jakinarazi behar diote bestelako diru-laguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak lortu dituztela helburu berbereko, edozein dela ere administrazio edo erakunde (publiko zein pribatu) emailea.

e) Erakunde emaileari jakinarazi behar diote diru-laguntza emateko kontuan hartu ziren arrazoietako edozein, bai objetiboki, bai subjektiboki, aldatu dela.

*Hamazazpigarrena.–* Eusko Autonomia Erkidegoko Administrazioak bekadunei istripu, elbarritasun edo heriotza kasuetarako aseguru bana egingo die.

*Hamazortzigarrena.–* Beka onartzeak deialdi honen oinarri-arauetan ezarritako baldintzak onartu beharra dakarkio jasotzaileari eta baita, ikerlanaren jarraipenari begira, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Zuzendaritzak har litzakeen ebazpenak onartu beharra ere.

Arau horiek ez betetzeak Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antola-arauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuan eta abenduaren 17ko 689/1991 Dekretuan ohartemandako ondorioak ekarriko ditu bere baitan, dagokion espedientea izapidetu ondoren.

*Hemeretzigarrena.–* Bekadunak bekari uko egiten badio, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak erabakiko du, inguruabarrak kontutan izanik, hartutako diru guztia edo zati bat itzuli behar duen (kasu horretan abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan jasotakoari begiratuko zaio) edo, bakarrik, aurrerantzean jaso behar zuen diru-kopurua ez zaion emango. Dena dela, jabetza hartu eta gero bekari uko egiten dion jasotzaileak, emango zaion epean, uko egitearen egunera arte egindako lana aurkeztu beharko du.

Bekari uko egiten bazaio edo hori baliogabetzen bada, izandako uko egitea onartzen duen Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpenak, deialdia bukatu arte geratzen den denbora edo bestelako inguruabarrak kontutan izanik, erabakiko du ordezkoak, hurrenkeraren arabera, bekadun gisa hasi ahal izango diren lanean bekaldia bukatzen den arte.

*Hogeigarrena.–* Deialdia indarrean jartzen den egunetik sei hilabete igarota, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ez bada esleipena egiteko erabakirik argitaratu, interesatuek ezezkotzat hartu beharko dute beren eskaera. Hori dena Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 44.1 artikuluaren arabera.

d) Comunicar a la entidad concedente la obtención de subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes, tanto públicos como privados.

e) Comunicar a la entidad concedente la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

*Decimoséptima.–* La Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi procederá a asegurar a los becarios contra los riesgos de accidente, invalidez o muerte.

*Decimoctava.–* La aceptación de la ayuda por el adjudicatario implica la de las normas que se establecen en estas bases, así como de las que se puedan adoptar, en su caso, por la Dirección del Instituto Vasco de Administración Pública, para el seguimiento del trabajo de investigación.

El incumplimiento de estas normas dará lugar a las consecuencias previstas en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, así como en el Decreto 689/1991, de 17 de diciembre, previa la instrucción del correspondiente expediente.

*Decimonovena.–* En caso de renuncia del becario, el Director del Instituto Vasco de Administración Pública, apreciando las circunstancias que concurran, resolverá si procede la devolución total o parcial de las cantidades abonadas (en cuyo caso se estará a lo dispuesto en el Decreto 698/1991 de 17 de diciembre), o solamente suspender y anular los pagos pendientes. En todo caso, el adjudicatario que renuncia a la beca una vez de haber tomado posesión de ésta, deberá entregar, en el plazo que se le indique, la parte del trabajo de investigación que hubiera desarrollado hasta el momento de la renuncia.

En el caso de renuncia o rescisión de la beca, la Resolución del Director del Instituto Vasco de Administración Pública por la que se acepte la renuncia producida, deberá disponer, en razón del tiempo que resta hasta la finalización de la convocatoria u otras circunstancias, la procedencia o improcedencia de designar adjudicatario al suplente que proceda según el orden de los mismos, para acceder a la condición de becario y desempeñar las actividades previstas durante los meses que resten de disfrute de la beca.

*Vigésima.–* Si transcurridos seis meses desde la entrada en vigor de la Resolución de convocatoria no se hubiera publicado en el Boletín Oficial del País Vasco Resolución alguna de adjudicación de las mismas, los interesados podrán entender desestimada su solicitud de conformidad con lo establecido en el artículo 44.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Hogeita batgarrena.–* Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 114. artikuluaren eta hurrengoen arabera. Horretarako, hilabete bat izango da ebazpen honen argitalpena egiten den eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Errekurtso hori ebazpena hartu zuen organoari aurkez dakioke edota, bestela, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuari. Errekurtsoari erantzuna ematen ez bazaio, ezezkotzat hartu beharko da.

*Vigésimo primera.–* Contra la presente Resolución del Director del Instituto Vasco de Administración Pública podrá interponerse recurso de alzada, según lo dispuesto en el artículo 114 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente al de la publicación de esta Resolución. El recurso podrá interponerse ante el órgano emisor de esta Resolución o ante la Consejera de Hacienda y Administración Pública. La falta de resolución expresa a dicho recurso tendrá carácter desestimatorio.

## II. ERANSKINA / *ANEXO II*

### HERRI-ADMINISTRAZIOAREN ALORREAN PRESTAKUNTZA LORTZEKO ETA IKERKETAK EGITEKO 2006-2007 BEKATARAKO ESKAERA
### *BECAS 2006-2007 PARA LA FORMACIÓN E INVESTIGACIÓN EN EL CAMPO DE LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA: SOLICITUD*

| |
|---|
| Izen-abizenak / *Nombre y apellidos:* |
| ENA/*D.N.I.:* |
| Proposatzen duen ikerketarako gaia / *Tema de investigación que propone:* |
| Proposatzen duen gaia honako ikerketarako arloaren barruan dago / *Área de investigación a la que pertenece el tema propuesto:* |
| Helbidea/*Domicilio:* |
| Telefonoa/*Teléfono:* |

A) Aurkezten ditudan agiriak / *Documentación que acompaño:*
(gurutze bat egin dagokion tokian / *señale con una cruz lo que corresponda)*

| | |
|---|---|
| ENAren fotokopia / *Fotocopia del DNI:* | |
| Ikasketa-titulua / *Título académico* | |
| Ikerlanaren memoria / *Memoria relativa al trabajo de investigación* | |
| Ikasketen ziurtagiri zehatza (emaitzak eta horiek lortu ziren deialdiak)<br>*Certificación académica detallada (calificaciones y convocatorias en que se obtuvieron)* | |
| Curriculum vitae | |
| Laneko esperientza egiaztatzen duten agiriak / *Justificantes de experiencia profesional* | |
| Ikerlanetarako esperientzia eta argitalpenak egiaztatzen dituzten agiriak<br>*Justificantes de experiencia investigadora y publicaciones* | |
| Prestakuntza ekintzetan parte hartu izanaren egiaztagiriak / *Justificantes de participación en actividades formativas* | |
| Euskara ezagupenaren egiaztagiriak / *Justificantes del conocimiento de euskera* | |
| Beste hizkuntza batzuetako ezagupenaren egiaztagiriak / *Justificantes del conocimiento de otros idiomas* | |

B) Zinpeko aitorpenak / *Declaraciones juradas*

| |
|---|
| Zin dagit ez soldatapeko lanik, ezta bestelako diru-laguntza edo bekarik ez dudala<br>*Declaro bajo juramento que no realizo ningún trabajo asalariado ni disfruto de ninguna otra ayuda o beca.* |
| Zin dagit herri-administrazioko alorrean prestakuntza lortzeko eta ikerketak egiteko, lehen, bekarik ez dudala lortu<br>*Declaro bajo juramento que no he disfrutado anteriormente de ninguna beca para la formación e investigación en el campo de la Administración Pública.* |
| Zin dagit ez nagoela diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea galarazten duen debekuren batean edo administrazio-zehapen edota zehapen penalen batean sartuta<br>*Declaro bajo juramento no estar incurso en ninguna prohibición o en sanción administrativa o penal que conlleve la imposibilidad de obtención de subvención o ayuda pública.* |

Lekua eta data / *Lugar y fecha:*

Izenpea/*Firma:*